

IRUN / Irakurketa publikoak liburutegian

Atzo Liburuaren Eguna zela eta, Ikust Alaia liburutegian bi irakurketa publiko burutu ziren egun guztian zehar. Lehenbiziko txandak, goizean, José Antonio Santano alkateak eta Belén Sierra Kultura ordezkariak eskaini zituzten. Alde batetik, Cervantesen 'El Quijote' gaztelaniaz irakurri zen eta, bestetik, Jabier Muguruzaren 'Laura kanpoan da'. Idazle irundarra liburutegira hurbildu zen arratsaldean, jendeurreko ekitaldi honetan txanda bat betetzeko bere nobelaren zati bat irakurri.

Muguruzak azaldu zuenez, «gauden garai honetan, liburuak, literatura eta kultura aldarrikatzea, nahiz eta egun bakar batean izan, positibotzat jotzen dut. Momentu honetan, 'zarata' ez akustikoa eta abiadura nagusi dira: denak oso azkar joan behar du...». Eta, honen aurrean, «liburuaren aportazio nagusia lasaitasuna da».

Jabier Muguruzaren iritzian, «kultura oso momentu arriskutsuan dago. Krisiaren izenean, indarra galdu du eta baztertu da, batez ere, profesionalek egindako kultura. Horren ondorioak oso larriak izango dira komunitaterako». Egoera honen aurrean, idazle irundarrak azpimarratu zuen bezala, «egun hau ospatzeak zentzu asko dauka».